

BEZEROAREKIKO HARREMANAK



1. Nola erakarriko ditugu bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko ditugu bezero horiek?

Gure enpresak eskainitako produktuak eskuratzea ez da gastu bat, inbertsio bat baizik; gure produktuen bidez energia elektrikoa eskuratzearen gastu izugarria asko murrizten duelako. Gainera ingurumena zaintzen laguntzen du eta horrekin batera, gure ongizatea. Zeren zeinek nahi du kutsadura handia duen airea arnastea eta horrek dauzkan ondorioak jasatea? Inork ez.

Honekin esan nahi duguna zera da, gure bezeroak, beraien gastuak murriztu nahi dutenak, ingurumena zaindu nahi dutenak, beraien bizi kalitatea hobetu nahi dutenak, edo ezaugarri guzti hauek dituztenak izango direla.

❖ Bezeroak erakartzeko eta mantentzeko teknikak

- Gastuak murrizteko, inbertsioak egiteko prest egon daitezkeen enpresariei zein ingurumenaz edo beraien bizi kalitatez kezkatuta dauden pertsoneri gure enpresaren eta eskaintzen ditugun produktuen berri eman.
- Gure blog-a ezagutaraztea.
- Produktu asko erosten duten bezeroei deskontuak egitea.
- Produktuak pertsonalizatzeko aukera.
- Produktu berriak sortu, hori egiteko behar diren diru-sarrerak ditugunean.

❖ Bezeroekiko harremana

- Bezeroarekiko harremana automatizatua izango da, bezeroek gure blog-aren bitartez egingo dutelako erosketak. Beraz, automatizatutako zerbitzua erabiliko dugu nagusiki. Hala ere, harreman pertsonala erabiliko dugu bezeroekin kontaktu "erreal" izateko:
 - Laguntza pertsonala: blog-aren bitartez edozein bezeroei laguntza eskainiko diegu, duda edo arazoren bat izanez gero. Gainera, blog-ean gure email-a eta telefonoa eskuragarri jarriko dugu bezeroekin kontaktua errazteko.
 - Laguntza pertsonal eskainia: eskaera handiak egiten dituzten bezeroekin zein bezero garrantzitsuekin sortuko dugu harreman mota hau, baita blog-aren bitartez harreman mota hori eskatzen duen edozeini ere.

- ★ Produktua eskuratu eta gero gure bezeroei gurekin harremana ez galtzeko aukera ematen diegu, izan dezaketen edozein duda argitzeko. Baina ez dugu gure bezeroa molestatu nahi telefonoz deiak eginez bere iritzia jakiteko, horretarako blog-ean atal bat dugu.